

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

540

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena. Honen bidez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2024. urtean ezar ditzaketan tarifen zerrenda eguneratua eta kontsolidatua argitaratzen da.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan, ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehazten dira, eta ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua duten entitate emakidadunei izenda dakizkiekeen eginkizunak deskribatzen ditu. Dekretu hori martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuaren bidez aldatu zen.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikulua honako hau ezartzen du: «Emakidadunek burutu ditzaketan azterketan tarifik dekretu hau garatzeko emandako xedapenetan aurreikusitakoak dira. Tarifok urtero eguneratuko dira ibilgailuen azterketaren alorrean arauk izan dezaketan bilakaeraren, aurrerapen teknologikoen eta, hala dagokionean, kontsumoko prezioen indizeak izan ditzakeen aldaketan arabera.»

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Aginduak arautzen ditu zer-nolako tarifik ezar ditzaketan zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan. 2024. urtean, ezar daitezkeen tarifik Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2023ko abenduaren 12ko Ebazpenak ezartzen ditu. Ebazpen horren bidez, ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2024. urtean ezar ditzaketan tarifik eguneratzen dira. Ebazpen hori 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren babesean eman da, eta honako hau aurreikusten du:

«Ez bada horri buruzko agindurik ematen behar den urtean, orain eguneratutako tarifik urtero eguneratuko dira KPIaren gorabeheren arabera eta urtetik urterako urriko indizea oinarritzat hartuta. Eguneratutako tarifik indarrean jarriko dira urtarrilaren 1etik aurrera.»

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariaren 2023ko abenduaren 12ko Ebazpena 2023ko abenduaren 28an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (246. zk.).

Bestalde, 2019ko abenduaren 9ko Agindu hori aldatu egin da Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2024ko urtarrilaren 16ko Aginduaren bidez, zeinak eginbide kontzeptuagatiko tarifa sartu baitu.

2024ko urtarrilaren 16ko Agindu horren Bigarren Xedapen Gehigarriaren bidez, «ahalmena ematen zaio Industria Administrazioaren arloan eskumena duen zuzendariari Euskal Autonomia Erkidegoaren aplikazio-eremuan Zerbitzuaren emakidadunek Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren arloan aplikatu beharreko tarifen zerrenda eguneratua eta kontsolidatua argitaratuko duen Ebazpena emateko».

Adierazitakoaren esparruan, eta azaldutako zuzenbideko oinarri, aipatutako agindu eta aplikazio orokorreko gainerako aginduen arabera, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 7. artikulua zuzendaritza horri esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2024. urtean ezar ditzaketen tarifen zerrenda eguneratua eta kontsolidatua argitaratzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen; honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Industriako sailburuordeari. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 22a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.

2024ko otsailaren 1a, osteguna

I. ERANSKINA
ALDIZKAKO IKUSKAPENEN TARIFAK

Ibilgailu mota	Dieseldunen tarifa		Gasolinadunen, hibridoen eta gainerakoen tarifa		Elektrikoen tarifa	
	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)
L L ibilgailuak, behean aipatutakoak izan ezik. L5e-B, L6e-B, L7e-A2, L7e-B2 eta L7e-C (kuadriziklo kabinadunak eta antzekoak)	23,81	28,81	23,81	28,81	20,90	25,29
	45,47	55,02	43,54	52,68	41,80	50,58
	45,47	55,02	43,54	52,68	41,80	50,58
	66,18	80,08	65,02	78,67	63,28	76,57
	45,47	55,02	43,54	52,68	41,80	50,58
	66,18	80,08	65,02	78,67	63,28	76,57
	40,63	49,16	0,00	0,00	0,00	0,00
	36,50	44,16	0,00	0,00	0,00	0,00
	66,18	80,08	65,02	78,67	63,28	76,57
	66,18	80,08	65,02	78,67	63,28	76,57
M M1 M2, M3						
N N1 N2, N3						
O T eta nekazaritzako beste batzuk						
Obra eta zerbitzuetarako ibilgailu bereziak eta makina autopropultsatuak						
Zirkum-makinetarako edo aisialdiko azoka ibiltarietarako ibilgailu egokituak eta transformazio-estazio mugikorak.						

Oharra: Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan ibilgailuen azterketa teknikoaren emaitza idazteagatik tasa gehituko zaie tarifa horiei, ikuskapena derrigorrezkoa denean.

II. ERANSKINA

ERREFORMEN TARIFAK

Eranskin honetan agertzen den erreforma tarifari, III. eranskinean agertzen den «Izapidetze» tarifak gehitu behar zaizkio: indarrean dagoen Erreforma Gidaliburuan aipatutako «erreforma-kode» bakoitzeko izapidetze tarifaren kantitatea gehituko da, hain zuzen. Gaur egun, Erreforma Gidaliburuaren erabilera 866/2010 Dekretuak ezartzen du.

Erreforma batean, ibilgailuaren masa edo ardatzen arteko masa banaketa aldatzen bada; dagokion azterketa teknikoaren tarifaz gain, pisatze-tarifa aplikatuko da. Hala badagokio, pisatzeak exijitzen duten erreforma ezberdinak aldi berean egiten direnean, pisatze-tarifa behin baino ez da eskatuko.

Erreforma onartzeko proiektua aurkeztea ezinbestekoa denean, «proiektua berrikusteko» tarifa gehitu behar da.

	Dieseldunen tarifa		Gasolinadunen, hibridoen eta gainerakoen tarifa		Elektrikoen tarifa	
	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)
Erreformaren tarifa	46,44	56,19	46,44	56,19	46,44	56,19
Proiektua berrikustea	23,22	28,10	23,22	28,10	23,22	28,10

III. ERANSKINA

BESTELAKO IKUSKAPEN ETA ZERBITZUEN TARIFAK

	Prezioa (eurotan)	Prezioa % 21eko BEZa barne (eurotan)
Izapidetzea	12,48	15,10
Ibilgailuak pisatzea	15,87	19,20
Matrikulatu aurretiko ikuskapena	43,03	52,07
Eskola-garraioaren eta adingabeen garraioaren azterketa espezifikoa	34,84	42,16
Ikuskapen partziala	Behar den aldizkako ikuskapenaren % 50, gehienez % 100	
Joan-etorrien gastuak (kilometroko)	0,65	0,79
Lekualdatzeagatiko gutxieneko fakturazioa	13,17	15,94
Eginbidea	6,03	7,30

OHARRAK

1.– Matrikulatu aurretiko ikuskapenerako adierazitako tarifa hurrengoekin batu behar da: ibilgailuaren kategoriaren arabera dagokion aldizkako ikuskapenaren tarifa; eta, hala badagokio, erreformak erregularizatzeko zein ibilgailua pisatzeko tarifak.

2.– Eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoa aplikatuko zaie garraio mota horretan alta emanda dauden M2 eta M3 kategorietako ibilgailuei, eta aldizkako ikuskapenaren tarifari.

3.– Eskola-garraioaren tarifa bera erantsiko zaie eskola-garraioaiko alta-erreformei, eta erreforma-tarifari.

4.– Ibilgailu arinen ikuskapenetan, batez ere taxien kasuan: ez da eskola-garraioaren tarifa ezarriko, baldin eta taxien eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoa egiten bada eta ibilgailuaren aldizkako ikuskapenarekin batera egiten bada; aitzitik, tarifa hori ezarri egingo da, eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoa soilik egiten bada.